

# Nafarroakaria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1995eko urtarrilaren 13a / VI. urtea / 161. zenbakia



San Fermin Ikastolak du Nafarroako ikasle kopururik altuena, 1.300 inguru.

JOXE LACALLE

25. urteurrena ospatzen dute aurten sei ikastolak, tartean Nafarroako handienak. Festa urtea izango da ia-ia haiendako, batzuek behintzat aurreko urteetako estutasunak gairidituak bide dituzte eta. Egitarauak prestatu dira toki bakoitzean, eta ekainean ospaki-

## Ikastolen urtea

zun bateratua egin nahi du Ikastolen Elkarteak Iruñean. Konpontzeko bidean daude oraindik, halabaina, hainbat arazo, eta heldu diren 25 urteak orain artekoa finkatzeko izango omen dira. Lasaitasunik ez baita ikusten, ez behintzat oso gertu.

### Eguberri txuriak

**E**tengabe dihardute txori saldoek airean bueltaka. Antenen artean pausaleku aurkitu eta zenbait mementutan ezkutatzera jolasten dutela dirudi. Handik laister, ordea, teilatuen gaineko beren hegaldaldi anarkikoari ekiten diote, indar berriaz.

Erreniega mendian ederki mugitzen dira haizerrota erai-ki berrien besoak, inungo

atsedenik gabe, haizeari etekinak atereaz. Gizakiak asmatu-rik tresnek ongi neurtzen dute denbora, mendi lepoan, haruntza ta honuntza, haruntza ta honuntza, mugimendu bera beti, mekanikaren legeak hutsik egin gabe. Noingo aireportura hurbiltzen da arratsaldeko hegazkina, ilunabarreko argi hilkorrak lagun eta bere durrunda hotsak betetzen

### Zubian barna

BINGEN AMADOZ



du une batez zeharkatzen duen inguru osoa.

Abiada bizian daramate kotxe beltz luzean, azpiko errepidetik eritasunak menperatu duen azkenekoa eta aurreko pabilioian argi bat, bi argi itzali eta bat, bi, hiru piztu dira elkarren segidan.

Kristalaren bestaldeko mundu txikiak bizirik dirau.

Barnekalderantz orduak

luzeak dira, elkarrizketak motelak, isurkiak ttantaka behera nagiak, pasabidean barna notizi txar jaso berri dutenen negar ixilak, erien arnasa neketsua, hasperenak luzeak, eri-zaindarien umorea eskasa. Lagunen hitza inoiz baino pozgarriagoa, mingarriagoak etsaien eztenak eta kanpoan baino txuriagoak Eguberriak.



## GURE AUKERAK

### ZINEMA



'Tlayucan' izenburuko pelikula eskainiko dute heldu den ostegunean, urtarrilak 19, Iruñeko Olite zinemari. Nafar Ateneoak Zinema Mexikarrari buruz antolatutako zikloaren barruan, arratsaldeko 8.00etan hasiko da.

'Notebook on cities and clothes' Win Wenders zinema zuzendari alemaniarraren pelikula eskainiko dute heldu den asteartean, urtarrilak 17, Iruñeko Olite zinemari. Zine Klub Lux-ek antolatutako zikloaren barruan, arratsaldeko 8.00etan hasiko da. Sarrerak 350 pezetan salduko dituzte.

### MUSIKA



Los Dinosaurios musika taldeak kontzertua eskainiko du bihar larunbata, urtarrilak 14, Zubiriko 'Gautxori' dantzalekuan. Musika emanaldia goizaldeko ordu batean hasiko da eta sarrerak 1.000 pezetan salduko dituzte.

### ERAKUSKETAK



Pablo Uranga artistaren erakusketa zabalik dago Lizarrako Gustavo de Maeztu Museoa. Ikusteko ordutegia goiz eta arratsaldekoa eta otsailaren 5a arte iraunen du.

'Stop HIESa' izeneko erakusketa zabalik dago Iruñeko Tafalla Jauregian, Zapateria kalean. Panelak aparte, bideo proiektzioak eta bestelakoak ere ikusgai izango dira. Urtarrilaren 15a arte iraunen du eta ikusteko ordutegia hau da: lan egunetan 19.00etatik 21.30etara eta jai egunetan 12.00etatik 14.00etara.

### ANTZERKIA



Pasadas las cuatro antzerki taldeak 'Te juro por mi madre que me las voy a cobrar' izeneko lana taularatuko du gaur ostirala, hilak 13, Zizur Nagusian. Kultur Etxean egun hauetarako antolatutako dituen ekitaldien barruan, gaueko 10.00etan hasiko da, Kultur Etxean bertan. Sarrerak 400 pezetan salduko dituzte, gazte txartela aurkeztuz gero 200 pezetan.

Antzerki Teknikak, Yoga, Kiromasaia, Autodefentsa, Ingeleza, Arnasketa eta Lasaikuntza ikastaroak antolatu ditu datozen hilabetetarako Andrea Emakumeentzako Zerbitzuak. Urtarrilean hasiko dira denak eta bukarrera martxo edo ekainean izanen da, ikastaroen arabera.

## NAFAR KRONIKA

PATXI LARRION

### Nafarroako Zuriñe

Antza denez, Gaztela aldean jarraitzeko asmoa du Nafarroako Zuriñek. Duela hiru hilabete, merezitako atsedendia amaitu zitzaionean, bat baino gehiagok Nafarroara berriro itzuli zen esperantza eduki

Kronikei kasu egin behar badiegu, bakezale bezain elkarrizketazale izan zen Zuriñe, ez zuen lan makala, etxean bertan baitzituen gatazkaren bi aldeak. Ondorengo gertakizunak aski ezagunak ditugu, edota izan behar-

tzuen poza: Elkarrizketazale bat guregana baletor! Gure etxeak behar duen bakea bertirako!

Menturaz, berak utzitako ondarea norbaitek baliatu lezake! Egun, nafar politikagintzan, pertsonaia jakin ba-



zuen.

Gorputzez ahula bazen ere, sasoiko emakumea genuen Zuriñe, kronikak behinik-behin gisa horretan mintzo dira bere pertsonalitateaz. Nafar dinastiaren garai ilunak hasiak ziren, Erresuma hondamendira eramanez zuten garaiak.

ko genituzke.

Segoviakoa jakinda, historialariek berehala nabarmendu zuten aurkikuntzaren egiakotasuna, datu guztiek ondorio berberara eramaten bait gintuzten, Nievan aurkitutakoak Nafarroako Zuriñeren aztarnak ziren. Horra hor arestian aipatutako zenbai-

tzuk hainbat kontu zuritzeko Zuriñe baten desiran dira, gatazka nafar gizartearena dela sinistarazi nahi digute, ez dezagun amua irentsi.

Beren etxeko kontuak dira argitu beharrekoak, hain zuzen ere, garbitu nahi ez dituzten kontuak.

Bego Gaztelan Zuriñe!

### ASTEKO PERTSONAIAK



Jose Mari Garcia  
Futbolaria

H amahiru urte zituenean iritsi zen Jose Mari Osasuneko gaztetxoentzako taldera eta ortutik hemen izan da. Osasuneko lehen mailara 1990ean igo zen eta orain, joan den astelehenean, Barcelonako jokalaria da. Pasa den denboraldian ere saiatu ziren katalanak jokalaria erosten, baina kontratua eteteko ezarritako diru kopurua handiegia zela eta, ezerezean gelditu zen. Errioxan jaio zen Jose Mari futbolaria 1971an eta datozen lau denboralditan, hau barne, Barcelona taldean ariko da, ahal duen guztia eskaintzen. Jokalariaren truke 150 milioi pezeta jaso ditu Osasunak eta Baceonak Iruñean partidu bat jokatu beharko du. Oso pozik agertu zen Jose Mari fitxaketarekin, «salto izugarria» izan dela esanez.



Jordi Pujol  
kataluniako lehendakaria

Iruñean izan da aste honetan Jordi Pujol Kataluniako lehendakaria, Navarra Foro XXI saioren barruan partehartzera. Aurretik Juan Cruz Alli Nafarroako Gobernuako lehendakariarekin bildu zen, eguerdi aldera, eta elkarrekin bazkaldu eta gero Iruñeko Katedrala bisitatzera abiatu ziren. Alfredo Jaime Iruñeko alkatearekin ere izan zen Pujol lehendakaria, udaletxean bertan, Parlamentura joan aurretik. Agenda estua bazuen ere, adierazpen ugari egin zituen katalanak, Estatuko hainbat puntuei buruz iritzia emanez. Felipe Gonzalez Espainiako presidentearen aldeko jarrera nabarmendu ondoren, ekonomiaren egoerari buruz luze mintzatu zen Pujol, gorakada nabarmena dela azalduz.

### AHAZTU GABE!

#### BERTSO SAIOAK



Sarasua anaiek, Aitor eta Jonak, jarritako bertso emanaldia eskainiko dute heldu den asteazkenean, hilaren 18an, gaueko hamarretatik aurrera Iruñeko Niza tabernan. Juan Luis Lekunberri pianojolearen laguntzaz, Durangoko azokarako prestatu zuten 'Fauna txiki bat bertso berritan' ikuskizuna taularatuko dute, okasiorako egokituta. Emanaldiko bertso paperak Durangoko azokaren enkarguz egin zituzten Sarasuatarrek, saio bakarra eskaintzeko asmoz, baina gogo onez onartu dute Arturo Kanpion euskaltegiaren gonbitea Iruñera etortzeko. Durangoko emanaldiak polemika bizia sortu zuen ETBko lau kazetari jakini egindako kritiken ondorioz, ez baita Sarasuatarren estiloa zorrotzazunik gabeko bertsoak botatzea. Oraingoan ere hainbat pintzelada gazi-gozo emango diote egungo errealitateari: arranoak, katamixarrak, hontzak eta txakurrak eszenatokian, RHak, kazetariak, mendiak, herri zapalduak eta beste gogoan. Dena bertsoz gogoratzen diren doinuak, jazz, music-hall eta ukitu klasikoak nahastuz.

### ADI!

#### EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Egunero, astelehenean ostiralera, 'Zokobetailu' goizeko 10.00etatik 11.00etara.

#### XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etati 22.00etara... 'Karakola segi hola' gazteendako saioa.

#### ARALAR IRRATIA FM 106.2

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarrizketak.

#### KARRAPE IRRATIA FM 107.8

Astean zehar, 12.20etatik 12.35etara 'Gauza guztien gainetik' edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak...



### Orzaize

### Baztan



Pala eta paloteak hartuta, burasoen eraiki dute ikastola.

BOB EDME

## Ikastolaren haurrak seaska berrian

LUTXI FOURCADE / ORZAIZE

Orzaizeko ikastolaren haurrak pozik daude. Azkenean, Nafarroa Behereko xoko honetako ikasle guztiak elkartu dira eskola berdinan, joan den udan abiatutako obrak bukatu baitituzte burasoen. Finkatutako helburua lortu dute, aurrikusi baituzten eraikuntza omiasaindu edo eguberriko oporren ondoren idekiko zela. Hala ere, gauza frango burutzean daude eta nola ez, lehen-dabizikoan, eraikuntza egiteko egin zuten mailegua pagatu...

Herriko lokalak baliatu ondoren eta ikusiz hautetsiek ez zuten gogo izpirik ere benetazko ikastola eraikitzeko, lanari ekitea erabaki zuten bertako burasoen

Orzaizeko lur eremua erosiz. Urtez urte, ikastola lurretik ateratu zuten, ama-ikastolarekin 1991an eta aterbearekin ondoko urtean. Bitartean, 1985an idekitako ikastolaren beste haurrak banatu ziren herriko bi tokitan.

Tokiaren behar gorrian zirela eta, ikastola osoa eratzea erositako lur eremu horretan erabaki zuten burasoen eta 350.000 liberako mailegua lortu ondoren, burasoen pala eta paloteak hartu zituzten harriz harri ikastola altxatzeko. Uztailean hasirik, obretan izerdi aintz utzi dute burasoen eta orduak iragan ere, hiru gela berriak hurrei eskaintzeko. Eraikuntza berrian bulegoa eta komunak ere aurkitu zituzten haurrek joan den ostegunean.

Alta lana ez dute bukatu burasoen, maiatzan egingo den inaugurazio ofiziala urrun baita oraindik. Lehen indarra diru biltzeari dedikatua izanen da, bultzatutako zozketak mailegua itzultzeko ez baitu arrakasta haundirik ukan. Mezu berezia luzatu zieten ikastolako ardura-dunek ikastola laguntzale guztiei laguntza igor dezatela Orzaizera. Deia gaurregun ere baliagarria da baina beste ekitaldiak antolatzeko erabaki dute. Hala nola, datorren otsailaren 4an Sustraiak taldea Orzaizetik itzuliño bat egingen du, 'Mustafa' famatuak laguntzeko asmoa adierazi omen baitzien hurrei. Bertako hautesiak ez badira mugitu dirua biltzeko, kantaldi honi esker pa-

rranda egitea eta maileguaren zatia pagatzeko aukera izanen du ikastolako diruzainak.

Maiatzeko inaugurazio ofizialaren ondoren, buruilan urtero egiten den 'Urrats ttipi' aurtengo edizioa ere berezia izanen da, ikastolak 10. urtebetetzea ospatuko baitu. Hots, 1985an Orzaizeko ikastola ideki zen 7 haurrekin eta urtez urte arraskata polita bildu du, 50 haur sartu baitira 1994ko eskola sartzean. Egingo izen biltzearen arabera, 58 haur aterbetuko ditu datorren buruilan, lehen mailako azken klasea idekiko denean. Hiru andereñoek bertan lan egiten dute, beste lan postu erdia frantses hizkuntzaren erakuntzari dedikatua denean.

## Aukeratu ziren herrietako alkateak

P.U. / IRUÑEA

Aukeratu ziren bai, aukeratu, Baztango 15 alkateak abenduan, baina ohi baino arazo handiagorekin. Horieta 14 herritan hautagai bakarra izan zen, eta, beraz, automatikoki izendatu zen, eta Ziga herrian Lorenzo Kerejeta bertako alkategaiak, karguak elizarekiko dituen eginbeharrak direla eta, uko egin zion. Ondoren, batzar nagusian bera aukeratu zuten kargu horretarako.

Askok azaldu dute ordenantzak aldatu beharra dagoela, alkatearen karguak lan handia eta poz gutxi ematen ditu eta, eta 'Tipi-ttapa' aldizkariaren azken alean horri buruzko irizirik esanguratsua agertu dituzte zenbait. Jon Frantsesena Elizondoko alkateak, kasu, gauzak aldatu ezean, sistema desagertu egingen dela dio garbi. «Herrietako alkate eta kargodunei lan aunitz egitea tokatzen zaigu, eta lanaz gain, telefona dela eta gasolina dela, geure sakeletik dirua ateratzea ere tokatzen zaigu hainbertzetan». Segitezotan, beste modu batean egin behar dela dio garbi. «Autonomia eta kompetentzia gehixeago beharko genuke eta diru gehixeago ere gauzak egin ahal izateko. Gurekin bakar bakarrik lana egiteko kontatzen da».

Patxi Oartzabal Baztango alkateak, bere aldetik, arazoa errekurtsotan dagoela dio, eta, horretaz, ordenantzak ere aldatu eta egoki behar direla azpimarratu du.

Horretarako batzorde bat dago izendatuta, eta horretxek aurkeztu beharko ditu proposamenak Biltzar Nagusian.

## Azagra

### Aztarnategi bat aurkitu da herrian

IRUÑEA

Nafarroako Museoaren teknikari bat lanean ari da herrian bertan aurkitu den aztarnategiaren balioa zehazteko. Joan den astean aurkitu zen aztarnategia, San Adrian eta Azagra bitarteko errepidean egiten ari diren lanak direla eta. Alkatea teknikariarekin egon zen une oro, eta azaldu zuenez, tunel batzuk dira agertu direnak, baina oraindik ez dago jakiterik noizkoak eta zer garrantzikoak diren. Lur azaletik gertu azaldu dira, errepide berria eta zaharraren artean dauden lur sail batzuetan, Cuesta del Plano izena duen dermioan, hain zuzen ere.

## Errotz

E.E. / IRUÑEA

### Arakil ibaian hildakoaren bila ari dira oraindik

Irurtzongo Jose Manuel Goñi Bravo Arakil ibaira erori ondoren hil egin zen igandean, goizeko 10.20 inguruan. Jose Manuel Goñik 40 urte zituen eta Errotzko zubitik erori zen ibaira. Hurbilean ziren Oskia harrobiko zenbait langilek hildakoaren oihuak entzun zituzten laguntza eske. Urbazterrera hurbildu eta Jose Manuel Goñi ikusi zuten adar batzuei helduta baina nahiz eta laguntzen saiatu, ibaiko urak Jose Manuel Goñiren gorpua

irentsi egin zuen. Jose Manuel Goñi Arakil ibaian desagertu zenetik haren gorpua bilatu dute Nafarroako Gobernuak eta Goardia Zibilak urpekariak Gurutze Gorriko hainbat kiderekin batera baina oraindik ez dute aurkitu. Azken egunotako hotzak eta euriak gainera, bilaketa lanak zaildu egin dituzte. Arakil

ibaiaren urjarria ere oso handia da eta Jose Manuel Goñi aurkitzeko aukera ia bakarra ibaiertzeko adarretan gelditu izana da.

Jose Manuel Goñi azkenekoz ikusi zutenek erran dutenaren arabera, Irurtzongoak kotxea hartu eta Errotzera abiatu zen, Irurtzunik hiru bat kilometrora. Zubira joan eta bertatik Arakil

ibaira erori egin zen. SOS Nafarroak 10.30ak aldera jaso zuen gertatutakoaren berri eta berehala, suhiltzaileen taldeko urpekariak ibaiko uran murgildu ziren Jose Manuel Goñiren bila. Foruzingoko kideek, bitartean, hurbileko zubiak miatu zituzten baina hutsen. Hildakoaren berroka baino ez zuten aurkitu adar batetik zintzilik. Arratsaldeko 5etan bertan behera utzi zuten bilaketa, biharamuneko goizeko 9ak arte. Jose Manuel Goñiren gorpua ez da oraindik agertu.



Zizur Txikiko San Fermin

## «Gorriak ikusi genituen zatiketa gertatu zenean»

E. DIEZ DE ULTZURRUI / IRUÑEA


Gure herrialdean aldaketa gaitzak gertatu zireneko hamarkadan sortu zen gerra ondoko lehendabiziko ikastola, izena moztuztuta, jakina. Jose Antonio Mugertza jaun euskaltzaleari zor zaion lehen saiakera hura gobernadoreak zapuztu zuen argia ikusi orduko. 63garren urteko hark erreka jo baldin bazuen, bi urte berantago abiarazi zenak ez zuen porrotik ezagutu inondik inora. Oztupoak oztupo, ikasle kopurua goiti zihonan, eta, horrekin batera ere harrotu egin zen barreneko harra gaiztoa: zenbait gizon emakumeren itxikeria zela-eta, ezinbertzekoa gertatu baitzuten batasuna haustea eta horrek zatiketa eragin zuen. 70garren urteko apirilaren 11an, San Fermin Ikastola sortu zeneko udaberria, alegia.

«Estu eta larri ibili ginen. Kanporatu egin baikintuzien eta Aste Santuko oporrez baliatu ginen Patxi Zabaleta eta biok leku berria topatzeko. Azken momentuan eta misioetako delegatuaren laguntzaz, Casimiro Saralegiren laguntzaz, zenbait gela utzi zigiguten erentan Zizur Txikiko Verbo Divino komentuan». Ikastolako bultzatzaile handienetakoa batek erran digu hori, benetan izugarrikoa lana egindakoa baita Fernando Zibiriain. «Garai hartako urteetan salaketak jarri zituzten gure aurka, faltsuak, noski: komunistak ginela, afera politikoetan genbiltzala, maitasun librearen aldeko ginela eta abar».

Zatiketa gertatu zelarik, 310 ikasle zebiltzan, eta, gehien gehienek San Ferminera jo zuten, eta, horiekin batera irakasleen erdiak ere, bertzeak bertze, Izaskun Gastesik: «Alde batetik egun txarrak izan ziren haiek, gorriak ikusi genituelako, baina, bestalde, bi ikastola sortu ziren. Gurasoen aldetik sekulako ilusioa zegoen, baita irakasleon aldetik ere, eta haurrak kontzientziatua-ge etortzen ziren etetik gaur egun baino». Ilusioarena ere azpimarratzen du Jesus Atxak, hau da, ikastolak izan zuten lehendabiziko zuzendari jaunak. «Horrexegatik jo genuen aurrera oztupoak gaindituz». Eta arazoan artean larriena, legezatzeara zena, noski. Gotzaiak baimena eman zien San Fermin izena erabili ahal izateko, eta, legezatzeara 70eko abenduaren 3an iritsi zuten. Atxak ederki gogoratzen duen moduan: «San Ferminen zama handia zeraman egin zitzaizkion salaketak zirela medio. Verbo Divinora etorri ginen egunean berean ere, nor eta ez zitzaigun

ba, Martzelino Garde agertu, oihuka, marxistak eta komunistak ginela? Gauzak horrela, bi bitartekari bidali genituen gobernadorearengana baimena lortzeko: Miguel Jabier Urmeneta eta Estanis Arantzadi (biak egun zenduak). Gobernadoreak esan zien denuntzia larriak bazirela ikastolako gurasoen aurka. Beti ere, haiek erantzule izan ezker, ba, baimena ailegatuko zela. Eta holaxe ba, juntaburu Urmeneta eta buruorde Arantzadi jarri genituen, eta, baimena San Franzisko Xabier egunean etorri zen».

Urteak joan, urteak etorri 25 urte iragan dira eta hainbat batzorde antolatatu dituzte urtemuga hori behar bezala festatzeko.



San Fermin Ikastolak 18 urte bitarterainoko ikasketak eskainiko ditu.

JOXE LACALLE

Apirilaren hasmentan ikastolaren egun handia izanen da. Ikasle txarrak izan ziren haiek, gorriak ikusi genituelako, baina, bestalde, bi ikastola sortu ziren. Gurasoen aldetik sekulako ilusioa zegoen, baita irakasleon aldetik ere, eta haurrak kontzientziatua-ge etortzen ziren etetik gaur egun baino». Ilusioarena ere azpimarratzen du Jesus Atxak, hau da, ikastolak izan zuten lehendabiziko zuzendari jaunak. «Horrexegatik jo genuen aurrera oztupoak gaindituz». Eta arazoan artean larriena, legezatzeara zena, noski. Gotzaiak baimena eman zien San Fermin izena erabili ahal izateko, eta, legezatzeara 70eko abenduaren 3an iritsi zuten. Atxak ederki gogoratzen duen moduan: «San Ferminen zama handia zeraman egin zitzaizkion salaketak zirela medio. Verbo Divinora etorri ginen egunean berean ere, nor eta ez zitzaigun

**D**uela 25 urte 'ikastola' hitza ezezaguna zelarik, baita euskaldunen belarrietan ere, Nafarroako hainbat herritako guraso eta euskaltzale bakan batzuk orduan amets bat besterik ez zena gorpuzten hasi ziren: euskara ikasgeletan ere sartzea. Itzelezko borondateari esker euskarazko irakaskuntzan lehen urratsak eman ziren orduan, eta hortik sortu ziren gaur egun erabat

Lizarrako Lizarra

## «Etixerik gabeko ikastolak zaila du etorkizuna»

ALBERTO BARANDIARAN / IRUÑEA

LOGSE da ikastola guztien kezka garai hauetan, baina inon lasai baldin badaude, Lizarrako ikastola da, aurtun 25. urteurrena betetzeaz gain, derrigorrezko bigarren hezkuntza lasaitasun osoz eman ahal izateko ikastetxea ere inauguratuko dutelako. Urteurren hau ospatzeko irailaren 30ean jai eguna antolatu dute, eta lanean ari dira dagoeneko bi batzorde.

Gaur egun Nafarroako ikastolarik sendoenetakoa da, hain segur, Lizarrakoa. Arrakasta azaltzeko bi ardatz aipatu ditu Koldo Viñual zuzendariak: proiektuaren onespina eta ikastetxearen sendotze prozesua.

«Izan ere, etxerik gabe ikastola batek zaila du etorkizuna». Hori izan da haste-hastetik hazkuntza izugarria izan zuen ikastola honen lema. Hogeita lau ikasle 1970an, bost urte geroago 160 ziren, eta 1980an 400. «Hazkunde hori zela eta, konturatu ginen ikastetxea erostea izango zela gure salbazioa, eta 1985ean egin genuen lehen Nafarroa Oinez-i esker Eskolapiosetako eraikina erosi genuen». Bost urte geroago berriro antolatu zuen Lizarrako ikastolak festa erraldoia, eta zentro berria goitik behera egitea erabaki zen orduan. LOGSE indarrean sartzeaz azen eronka zegoen ikusmiran: bigarren mailako derrigorrezko hezkuntza eman ahal izatea. Ikastola kredituz leporaino zegoela eta, ez zegoen beste erabakirik hartzerik: gurasoek 200.000 pezetako kreditu pertsonalak eskatu zituzten, eta horrela egin ziren administrazioak eskatzen zituen beharrezko azpiegiturak. «Horri esker», dio Viñualek, «gu gara hezkuntzako erreformarako eraikina bukatuta dugun bakarrik».

Proiektuak erabateko onespina jaso du Lizarran, eta hori, Viñualek dioenez, nagusiki kulturala izan delako. «Herrian gure proiektua kaleratzen jakin izan dugu, urtean zehar ekitaldi asko antolatzen ditugulako: Olentzeroa, Santa Agedako koroak, inauteriak, kalejirak, jaialdiak... Horregatik, mota guztietako jendea dator ikastolara, politikatik ere bereizi dugulako. Bakarrik abertzaleak etorriko balira, 600 haur izan beharrean 200 izango genituzke».

Tafallako Garces De los

## «Gure beldurra Adminisioa da»

A.B. / IRUÑEA

Otsaila eta ekaina bitartean burutuko du bere jai egitaraua Garces De los Fayos Tafallako ikastolak. Otsailean zuzendariaren erabili ahal izango du Eskola Zaharreko etxebizitza ikastolak, eta akordioa bere garaian onuragarria izan bazen ere, gaur egun lotu samar uzten dituela azaldu du. «Ez dugu ondasunik, eta hori traba da, jakina».

Erronka larria du aurrean ikastolak, LOGSE dela eta, 16 urte bitarteko irakaskuntza eskuratzea baitu asmoa. Nafarroako Gobernuaren egitasmoaren arabera, soilik 14 urte artekoa dagokio, baina Udalak aho batez hartu zuen aldeko erabakia oso

lortu zen akordioari esker Udalaren onspina izan zaie. «Ikastetxea den eraikuntzan ari baita lanean gaur egun. Angel Iriso bertako zuzendariak azaldu duenez, bere zeregina aurrera eramane bitartean erabili ahal izango du Eskola Zaharreko etxebizitza ikastolak, eta akordioa bere garaian onuragarria izan bazen ere, gaur egun lotu samar uzten dituela azaldu du. «Ez dugu ondasunik, eta hori traba da, jakina».

Erronka larria du aurrean ikastolak, LOGSE dela eta, 16 urte bitarteko irakaskuntza eskuratzea baitu asmoa. Nafarroako Gobernuaren egitasmoaren arabera, soilik 14 urte artekoa dagokio, baina Udalak aho batez hartu zuen aldeko erabakia oso

## Atarrabiako Paz de Ziganda «Garai ezin hobean heldu zaigu 25. urteurrena»

A.B. / IRUÑEA

«Ezta propio jarrita ere, ez genuen aurkituko garai hobea gure 25. urteurrena ospatzeko». Jose Luis Gorostidi Atarrabiako Paz de Ziganda ikastolako zuzendariari optimismoa dario hitz bakoitzean. «Inoiz baino sendoa gaude». Ez da inolaz ere harriztekoa, urteurrenarekin batera, 25 urteko ibilbidea pausatu eta finkatuko baitu Atarrabian jai eta Burlatako mugan behinbetikoz kokatuko den ikastolak. Urte hauetan guztietan «inoren etxean» aritu ondoren, aurtengo irailaren amaieran azkenean euren ikastolako ateak zabaltzeko asmoa dute Paz de Zigandakoek.

Horregatik urte osoko egitarauak marka hori eramango du. Joan den urriko 15ean ikastola berriko lehen harria paratu zen eta horrek agindu zuen ospakizunen hasiera. Urte hau, beraz, funtsezkoa izango da 800 ikaslelik gora duen ikastolarendako, baina bide onetik doazela azpimarratu du Gorostidik.

LOGSE legearen hizpidea dute bertan ere, nola ez. Hamasei urte arteko eskaintza ziurtaturik, 18 urte arterainokoa eskuratzea da euren asmoa. «Baimenak baditugu», dio Gorostidik, «baina ofizialki oraindik ez dizkigute eman. Gauza asko daude tartean, batez ere ahalmen ekonomikoak, behar diren azpiegiturak egin ahal izateko inbertsioak egin behar direlako, baina baietzaren alde dira ditugun inpresioak».

Etorkizun oparoa igertzen baizate ere, ez dute bide leuna eta lorez betetakoa izan Paz de Zi-

## Atarrabiako Paz de Ziganda «Garai ezin hobean heldu zaigu 25. urteurrena»

A.B. / IRUÑEA

«Ezta propio jarrita ere, ez genuen aurkituko garai hobea gure 25. urteurrena ospatzeko». Jose Luis Gorostidi Atarrabiako Paz de Ziganda ikastolako zuzendariari optimismoa dario hitz bakoitzean. «Inoiz baino sendoa gaude». Ez da inolaz ere harriztekoa, urteurrenarekin batera, 25 urteko ibilbidea pausatu eta finkatuko baitu Atarrabian jai eta Burlatako mugan behinbetikoz kokatuko den ikastolak. Urte hauetan guztietan «inoren etxean» aritu ondoren, aurtengo irailaren amaieran azkenean euren ikastolako ateak zabaltzeko asmoa dute Paz de Zigandakoek.

Horregatik urte osoko egitarauak marka hori eramango du. Joan den urriko 15ean ikastola berriko lehen harria paratu zen eta horrek agindu zuen ospakizunen hasiera. Urte hau, beraz, funtsezkoa izango da 800 ikaslelik gora duen ikastolarendako, baina bide onetik doazela azpimarratu du Gorostidik.

LOGSE legearen hizpidea dute bertan ere, nola ez. Hamasei urte arteko eskaintza ziurtaturik, 18 urte arterainokoa eskuratzea da euren asmoa. «Baimenak baditugu», dio Gorostidik, «baina ofizialki oraindik ez dizkigute eman. Gauza asko daude tartean, batez ere ahalmen ekonomikoak, behar diren azpiegiturak egin ahal izateko inbertsioak egin behar direlako, baina baietzaren alde dira ditugun inpresioak».

Etorkizun oparoa igertzen baizate ere, ez dute bide leuna eta lorez betetakoa izan Paz de Zi-



Atarrabiako etxe zaharra utzi egingo du Paz de Zigandak.

JOXE LACALLE

gandakoek. «Apustuak ez badira egiten gero eta gorago, bidean gelditzen zara beti, eta gu gerriraino sartu izan ez bagina zerbait izateko orain ez genuen ezer izango». Hala ere, erabateko lasaitasuna inoiz ez dela izango ziur dago Jose Luis Gorostidi zuzendariak. «Ez dut ikusten mugatu hori. Guretzat lasaitasuna da lanerako aukerak izatea, itota ez izatea. Erraztasun ugari ez dut ikusten nik lanerako, baina ari behar diren azpiegiturak egin ahal izateko inbertsioak egin behar direlako, baina baietzaren alde dira ditugun inpresioak».

Etorkizun oparoa igertzen baizate ere, ez dute bide leuna eta lorez betetakoa izan Paz de Zi-

Elizondoko Baztan

## «Lan izugarria egin behar dugu»

A.B. / IRUÑEA

Baztan Ikastolak badaramatza dagoeneko zenbait hilabete bere urtebetetzea ospatzen, baina udaberri- tik ekainera bitarte izanen da jai handia, bertan omenduko baitituzte hasierako urteetan lanean aritu ziren guztiak. Horrekin batera, ikastolaren historia jasoko duen liburua karrikatuko dute.

Egoera ez da izan zitekeen onena, LOGSE berrikuntzaren ondorioek bete-beteen harrapatu baitituzte baztandarrak. Nafarroako eskola maparen arabera, 12 urte arteko irakaskuntza soilik eskaini ahal izango du ikastetxeak, eta ahalgaitzak aha-

legin, ez dute administrazioaren aldetik jarreraren aldaketarik lortu. «Lekarozen izugarriko ikastetxea eskuratu du Nafarroako Gobernuak», azaldu du Kepa Dendarietatik ekainera bitarte izanen da jai handia, bertan omenduko baitituzte hasierako urteetan lanean aritu ziren guztiak. Horrekin batera, ikastolaren historia jasoko duen liburua karrikatuko dute.

Egoera ez da izan zitekeen onena, LOGSE berrikuntzaren ondorioek bete-beteen harrapatu baitituzte baztandarrak. Nafarroako eskola maparen arabera, 12 urte arteko irakaskuntza soilik eskaini ahal izango du ikastetxeak, eta ahalgaitzak aha-

**J**oan den urriko 15ean paratu zen Atarrabiako Paz de Ziganda ikastola berriko lehen harria, eta horrek agindu zuen ospakizunen hasiera.

Etxarri-Aranazko Andra Mari

## Lehena jaiotzen, lehena ospatzen

A.B. / IRUÑEA

Lehena izan zen, 1969ko irailaren hasi baitzen martxan, eta, noski, lehena izan zen urteurrena ospatzen, irailaren, hain zuzen ere. Olaztin urtebete lehenago, 1968an, sortua zen haur eskola, baina Etxarri-Aranazko Andra Mari Ikastola abiatu zen lehendabizikoa, hitza bera, 'ikastola', ere arraro askoa egiten zenean euskaldun gehienek belarrira. Irailaren, beraz, aurkeztu zuten horretarako atera zuten liburua txukuna, eta omenaldia egin zitzaizen gaur egun ikastetxe ederra dena eraikitzen hasi zirenei; izan ere, orduan azaldu zuten bezala, bazuten zer eskertu.

Sor Idokia mojak hasi zuen dena, eta berari esker osatu zen ikastolaren hasiera izango zen haur taldea. 1969an Juan Mari Artieda eta Pello Lizarraga herrikoek buru-belarri ekin zitoten andereñoak biltzeari, mojak herria utzi behar izan zuen eta. Diputazioko Principe de Viana erakundearen sartzu berria zen Jorge Cortes jaunari esker, Iruñetik ekarri zuten lehen andereñoa, Arantxa Langara, eta eskola zaharrean biltu zuten gela.

Hamabi ziren hasieran. Ez zuten inolako agiri ofizialik, errezeloz begiratzen zituzten herriaren, andereñoak ozta-ozta kobratzen

zuen, etxea ordaintzeko justu, eta testuak bere ardura ziren. Gurasoek ordaintzen zuten, eta maila- legua biltzea zen egin behar premiazkoena.

Egun 433 dira, eta 16 urte bitarteko irakaskuntza emateko ofizialtasun guztia eskuratua dute Diputazioetik. Onarpen erabatekoa dute herriari, eta nahiz eta lan handiz prestatu zen Nafarroa Oinez bat erriak zapuztu zuten, izan zuten nahikoa kemen ikastetxe berria egiteko. Etxarrikoak ezezik, Bakaikutik hasi eta Ihabarrerainoko haurrak biltzen dira bertan.


Irailaren egindako festan 700 kiloko oroitaria bedeinkatu zen, eta urteurrena ospatzeko Joseba Beramendi ikasle ohiak egin zuen 'Arkatza' logotipo berria ikastolaren ekintza guztien gainean paratzen da egun; izan ere, aurrerantzen 25 urte iraun duen talde honen ikur gisa erabiliko baita.



Nafarroa Oinez izan da ikastola askoren salbazioa.

JOXE LACALLE





Iruñeko Hiria Xake Torneo Itxiko 5. ihardunaldiko partida, 1995eko urtarrilaren lein jokatua.

Alexander Mozorevich, 2.577 ELOkoa (Errusia)-Vaselin Topalov, 2.645 ELOkoa (Bulgaria)

1.e4, c5; 2.Zf3, d6; 3.Ab5 xa, Ad7; 4.Ad7 xa, Dd7; 5.c4, g6; 6.d4, d4; 7.Zd4, Ag7; 8.0-0, Zc6; 9.Ze2, Ze5; 10.bZ-c3. Garapena peoi bat baino garrantzitsuagoa da. Noiz da komenigarria, egokia? Maisuen kontua da. 10..., Zc4; 11.b3, Zb6; 12.a4, Dd8. Zaldiari lekua egiteko. 13.Ae3, Zf6; 14.Gc1, 0-0; 15.h3, bZ-d7; 16.g4, Ze5; 17.f4, Zc6; 18.f5. Erasora jo dute txuriek. Erregea aterperik gabe geratzen ari zaie, baina ez du arriskurik.


18..., Gc8; 19.Zf4, Zd7; 20.g5, Zb4; 21.cZ-e2, Zc5; 22.Gc4, a5; 23.Zg3, Ae5; 24.Dg4. Ikus koa-droa. Txurien ia pieza guztiak, erregeari begira. Beltzen batzuk, hortik urrutu. Zer egin dezakete? Norberak azterketa zorrotza egin dezake. Baina arriskuari garrantzirik ez ematea pekatu larria da. 24..., Zb3; 25.g6, Gc4. Harrapaketa honekin, beltzek beren galketa sinatu dute. Txuriek, ederki!, ez dute barkatuko. 26.h7 xa, Eh8; 27.g6, Zc2; 28.Zf5, Ag7; 29.f7, Gf7; 30.Dh5, Gf6; 31.Zg6 xa, Gg6 xa; 32.Dg6, Df8; 33. Ah6. Beltzen 'Ah6' jokalariari, 'Zh6' dagokionez, bukaera da. Jipoi galanta, joko erasokorraren erakusgarri. Xakearen edertasuna!

## Mendiaren pozoia

**I**largo txiki batek argitzen zuen mendia, zuhaitzei itzalekin joko harrigarrietan jolasteko aukera emanez, eta baita larrean belarretan beste hainbat joko berezi gertatzeko aukera emanez ere. Han animaliek beren bizi gogorra egiten zuten, bata bestearekin, baina beti bake giro eder batean, beste dimentsio batetara garraiatu egiten zuten bake giroan.

Loizbehinka tartekatzen ziren hodei horientatik ez balitz, izarrek hauen edertasun gorena agertuko lukete, baso eta larre haiek agertzen zuten edertasun berbera. Gau hori, posiblea balitz, bereziagoa izango zen herriko etxerik urrunenean, aldapa gorenean zegoen etxe horretan.

Bertan gauerdia izan arren bigarren pisuan, herriruntz ematen zuen leihoan argia zegoen.



Aritz Andueza  
(BARAÑAIN)



belar moztu berriaren usain goxoarekin eta lurra estaltzen zuen goroldioan etzanda.

Bidean ahopeka bata besteari eguneko gertakariak azaltzen zizkion eta batzuetan gelditu eta behar baino bero gehiago ematen zioten elkarri.

Itzalek jadanik bi gazteenganako garraioaketa prozesu guziaz egirik zeukaten, eta bi gazteak mandoak sorgindurik zeuzkan, hauen izpirituak nahasiz, hauen izpirituak lotuz, hauen izpirituak batuz. Jadanik ez zuten ihesbiderik, jadanik ez zuten aukerarik, baina hauek ez zuten ihes egiteko gogorik, bertan gelditzeko gogoia besterik ez zeukaten.

Goroldio gainean poliki eta goxo-goxo etzan ondoren, elkarri biluzteari ekin zioten, ilargi txiki hark bien gau gozo hura ikusten zuelarik; hauek bata besteari plazerra nola ematen eta jasotzen zuten ikusi zuten, baita goxotasun eta



eta leihotik kanpo eseririk neska gazte bat. Ilargiaren izpiek haren aurpegi, ile eta gorputzean jolasen zutelarik, neska haren edertasuna bikoiztuz, baso eta larrekin konpara zitekeen edertasuna agertuz.

Bitartean, mutil gazte bat bidean barna zihonan eta oso berandu izan arren alai eta umoretsu zihonan. Atzean herriko argiak utziz, basoaren aurkako defentsa utzirik zeukan, beraz mendiko erreinu basatian sartzen zen. Han, iluntasunean, bere begiek ikuspuntu bat bakarrik zeukaten; herritik kanpo, aldapan gora zegoen etxearen bigarren pisuko leihoan azaltzen zen neskaren irudia.

Haruntz begiratzen zuten bere begiek eta ezin zuten tokiz mugitu, itzal horren edertasunak garraiatua baitzeukan, jadanik beste dimentsioan zegoen, drogatuta balego bezala.

Poliki-poliki haize zurrumbilo geldo baina fresko bat lasatu egon zen eta zuhaitzetako hostoak mugitzen hasiak zituen, itzalei jolasteko aukera ederrago bat emanez; belarrek musikari ekiten zioten bitartean, beren artean tolka eginez; in-sektuek, hauen dei itxaropentsuekin, ederrago-tzen zuten kantua.

Poliki-poliki ere, gazte itxaropentsua leihoraino gerturatu zen eta neskak ezer esan gabe leihotik behera jauzi egin zuen, jauzian soinego gorantz igoz eta ilea nahasiz. Hura ere, etxea uzterakoan, basoaren aurkako defentsa utzi eta munduaren erreinu basatian sartzen zen.

Behean biek elkarrengana hurbiltzen eta bata besteari beroa ematen hasi ziren, haizea fresko samar bait zebilen. Poliki-poliki biek ondo elkarturik segatu berri ziren larreetaruntz abiatzen hasi ziren. Han gustora egon baitzitekeen,

plazer hura atseginez eman eta jasotzen ikusi zuten eta nola azkenean bien indarrak amaitu zuenean azkeneko muxu eder eta luze bat ematen ere ikusi zuten eta baita ere nola denbora luze bat etzanda pasa ondoren jantzi eta etxerantz abiatu ziren.

Han ilargi txokoa mendiari bere edertasun osoa emanez, bakarrik utziz; han bakardadean eta itzalen jolasean, baso eta larreak utziz; han orkestra, inorentzat kantatzea utziz; han herriko etxerik urrunenean, aldapa gainean zegoen etxe horretan, bigarren pisuan, herriruntz ematen zuen leihoan, argia itzaliz. Hala ere gela ilun horren barnean amets bat zegoen, osotasunean zegoen espiritu erdi batek zeukan ametsa eta beste erdiak, herriko plazan zegoen etxe bateko gelan zegoen, beste erdiak amets bera zeukan, beste gazte baten barnean.

## Josemari eta Inaxio

**Galdera:** Josemari naiz, eta Inaxiorekin maitemindu naiz. Inaxio, berriz, Mariajoseparekin maitemindu da. Zer egin ote?

**Erantzuna:** Ez naiz sorgina, sor-teak egiten dituztenetakoak. Ez ditut txori-zorien erraiak irakurtzen (extispicium); ez ditut txori-zorien kantak ulertzen (oscines); baina bistan da zuetariko batek atsekaberen bat jaso behar duela. Mariajosepari aholku bat eman nahi diot. Ez izan harroputza, ez izan garrantza, ez izan arguila, eta kontutan har ezazu Amodioak bortizki zigortzen dituela atea ireki nahi ez diotenak. Igor Zabaleta, esate baterako, Goizane Herranekin maitemindu zen biziki; Goizane Herranekin muzin egin zion Igor Zabaletari gupidarik gabe. Gero Goizane Herran Josu Etxekartekobururekin maitemindu, eta oraindik ere, negarrez aurki deza-

kegu Iruñeko Baratzurien plazan, egun batean bai eta hurrengoan ere bai, haren kuita ezin lasaituz, Etxekartekoburuk ederki zigortu baitzuen.

**Galdera:** Nik Indiako perlak laket ditut, Ekialdeko itsasoko uhinak gorritzen direneko harri bitxiak. Nere maitale guztiak perla horiek erostera behartzen ditut, eta haien dirutzak akitzen direnean, kale gorriara botatzen ditut. Nere jokaera zilegi al da? Besterik gabe, Nafarkariaren irakurle amorratu bat.

**Erantzuna:** Nik esango nuke zilegi dela, oso komenigarria ez dela ere. Zutaz ezingo dute esan Tibulok joandako maitaleez esaten zuena, hau da, izena eta itzala baino ez dutela uzten. Eta zuek, berriz, Indiako perlen behin-behineko erosleak, utzi negar egiteari. Negararen negarrez begiak



Nori bere dolua  
iruditzen zaio  
sekulakoa dela, eta  
hola izanda ere,  
aintzina segitu behar  
da.

handitu egin zaizkizue, eta zuen kuitetan etzan zarete plazerraren plazerrerez, munduko pertsonarik zorigaitz-toko eta ondikozenak bazinate bezala, eta hori oso arriskutsua da. Nori bere dolua iruditzen zaio sekulakoa dela, eta hola izanda ere, aintzina segitu behar da.

**Galdera:** Nire astoz maiteminduta nago. Zure kontsulta partikularrean joan nintzen, eta ez da dakit zein idazle klasiko erabiliz, nire aztura gaitzetsi behar nuela esan zenidan. Hona hemen testu klasiko bat, Aymeric Picaudena, jatorriz latinez idatzitakoa, euskaldunen eta astoen arteko harremana argitaratu ematen duena: 'Bai eta nafarrak lizunki ari dira beren aberekin izorkerietan, zeren gauaz —diotenez— nafarrak lo egiten

du beren mando mularen edo behorren ipurdian, berak bakarrik inork ez izorrazteko. Bai eta emaztearen edo mandoaren aluari musua, zikinki ematen dizkiote'. Zer duzu orain esateko, sasi-mediku horrek?

**Erantzuna:** Zuk aipatu duzun testuan 'fikzio poetikoa' berezi behar duzu, hau da, idazleak bereganatzen duen ikuspegia. Aymeric Picaud Done Jakueraino joan zen kakalari batean, Nafarroako Lorka herrian ura edandakoan. Galdetu omen zuen ea edan zitekeen iturri hartatik, eta ez zion inork esan iturria gezala zela. Ez da harrizkoa euskaldunehalako iritzirik izatea. Normalean ez dut ezer eragozten. Honetan salbuespena egin behar. Hankalaukoak gustatzen ba-zaizkizu, Nafarkariako Zaldi Eroa irakurri eta aski.



**E**uskarazko bost ikastaro prestatu dute GITE elkarteak eta Arturo Kanpion euskaltegiak negu honetarako Iruñean. Hirugarren urtez, dagoen eskaintza urria osatu nahian, interesa eta gaurkotasuna duten gaiak aukeratu dituzte bi erakundeok, euskarari buruzkoak —interés handiena pizten dutenak— ahaztu gabe.

## Dialektologiatik telebistaraino

PATXI ULAIAR / IRUÑEA


'Euskal dialektologia', 'Ahozko eta idatzizko adierazpidea', 'Soldadutza Nafarroan', 'Historia garaikidea' eta 'Telebista eta Euskal Herria' izango dira GITE eta Arturo Kanpionen arteko lankidetzan hirugarren urtea den honetan prestatu diren euskarazko ikastaroak, urtariletik martxora arte irakasteko. Zenbait 'klasiko' eta proposamen berriak nahastuta, beraz.

Euskal dialektologiari buruz Xabier Pardo irakasleak emango duen ikastaroa izango da goiztiarrena, urtariletan hasita apirilera arte egingo baita, astelehenero. Iazkoaren ildotik jarraitzea da helburua, bai irakasleek bai ikasleek urritzat jo baitzuten orduan erakutsitakoa. Euskalki gehienak ukitu baziren ere, aurtentzen azaleko ezaugarri horietan sakontzea izango da ikastaroaren helburu nagusia. Nola ez, euskalgintzan diharduen eta hizkuntza aldetik jantzia den jendeari begira egindako ikastaroa izango da.


'Nafarroako Historia: aro garaikidea' izango da bigarren ikastaroaren gaia. Geronimo de Ustaritz Institutuko kideek eskainia izango da lehendabiziko aldiz, eta hilaren 24an hasita otsailaren 9a arte egingo da, arratsaldeko 7.30etatik 9.30ak bitartean. Azken urte hauetako bibliografiak, ikerketek argituriko hainbat ideia edota gertakizun jasotzen dira bertan, Antzinako Erregimenaren krisialdian hasi eta frankismoaren krisialdia heldu arte. Iosu Chueca, Emilio Majuelo, David Mendaza eta Patxi Larrion izango dira ikastaroaren arduradunak.

'Soldadutza Nafarroan' izango da otsailean jorratuko den ikastaroaren gaia. Gaurkotasun handikoa gainera, bai intsumisioak bai eta ordezko zerbitzuak ere gaur egungo gazteen artean duten garrantziarengatik. Gogoratu behar da, bestalde, bi argitaletzek atera zutela iaz gai honi lotutako liburu bana: Tafallako Txalapartak Jose Mari Espartzaren 'Abajo las quintas' eta Pamielak 'Manual de la desobediencia civil'. Ikastaroa mahainguru batekin amaituko da, gaur egungo errealitatearenei begiradaxoa eman ahal izateko.


Martxoan ahozko eta idatzizko adierazpena jorratuko da Bitorio Larrañagak emango duen ikastaroan. Hau ere iaz egin zen arrakasta handiz, baina motz samarra gelditu zen partaideen ustetan, eta aurtentzen gehiago sakonduko da gaia, testuak eta gehiago erabiliz. Idatzizko adierazpena izango da, beraz, gehien sakon-




EUSKAL DIALEKTOLOGIA




AHOZKO ETA IDATZIZKO ADIERAZPIDEA



SOLDADUTZA NAFARROAN



HISTORIA GARAIKIDEA



TELEBISTA ETA EUSKAL HERRIA

duko den gaia, ahozkoa ahaztu gabe, beti ere, eta euskaldunon ohiturak, irudi literarioak, maileruak hartzeko moduak eta abar aztertuko dira.

Bukatzeko lehen hiruhilabetearen egitarau hau, 'Telebista eta Euskal Herria' izeneko gaia aukeratu dute bi erakundeek. Pello Lizarralde idazlea da ikastaroaren arduraduna, baina oraindik ez dago data finkorik.

Aurreko urtetako esperientziari erreparatuta, arazo nagusi dute ikastaldiok: partehartzailena. Arazorik ez euskarari buruzkoekin, baina iazko bi saikera berrietatik bat —komikigintzari buruzkoa— bertan behera gelditu zen jende kopuru eskasa zela bide, eta besteak —rock & roll eta literaturari buruzkoa— arazo askotxo izan zituen gutxienezko partaideak bildu ahal izateko. Euskarari buruzko ikastaroek pizten dute, oraindik, interes handiena, eta «zoritzarrez», Sagrario Aleman Arturo Kanpionekoaren ustetan. «Euskaraz euskarari buruz egin behar delakoan gaude oraindik, eta horrekin, gure ustez, hautsi egin behar da». Irakaslearen ustetan, bi arrazoi daude hori ulertzeko. «Batetik, obsesio antzeko zerbait dago euskaldunen artean, hizkuntza gehiago ikasi behar dela eta. Beste aldetik, beste gai batekin euskaraz aritzeko gauza izango ote den duda dauka beti».

mintzoak

### Altxor iragankorrek

● Aholku bat eman nahi nizuke lerro hauen gainean pausatuta baino lehen. Izan ere, denboraz larri baldin bazabilta, utz ezazu segituan esku artean duzun hau eta irabaziezazkiozu bizpahiru minutu bizitzari. Ez zenidake sekula barkatuko lurraren gaineko zure iraupenari tarte prezioso eta berreskurazekin hau ohostu izana. Honetantxe baitatza astiaren garrantzia: bere berreskurazekintasunean. Inoiz saiatu al zara une gogoangarri eta ahantzezin horiek gordetzen? Non sartu? Nola izkutatatu erlojuari? Batzuek video-kameretan aurkitu dute betierekotasunari eusteko gordailua. Txoko guztietan aritzen dira edozein bataio, ezkontza edo ospakizun ahalik eta irudi fidelenez ilustratu nahian. Baina espezimen/women hauetaz luze mintzoteke eta guk betarik ez. Hörtaz, aukera egin beharra dago: aurrera egin ala bertan behera

utzi lerrook. Bat, bi eta hiru: honezkero hautua egin duzu.

Begiak parrafotxo hauetan mantentzea erabaki baldin baduzu olgetan, denborapasan, komunean ezin gustorago ala alu/potrojorran zabiltzalako seinale. Bihoazkizun nire zorion zintzoenak aipatutako egoeraren batean egoiteagatik, irakurle laso eta nagi hori.

Aitzinara joan aurretik egiozu so eskumuturrean (oso inbentu ona ordulariaren uhalak lortzeko) eramaten duzun esferari ea zerbait gertatzen den. Gonbite hau bete baduzu, tarte labur honetan zure existentzian funtsezko ezer ez dela gertatu pentsatuko duzu zure baitarako, seguruenik. Haatik, oker zabilta gerta zitekeen gauzarik tragikoena jazo baita: ohar-kabeen segundu batzuk ezabatu dira zure bizitzatik. Ez duzu sekula santan aukerarik izanen hitz hauek irakurtara-

ziz lapurtu dizkizudan segundu horiek berriro gozatzeko.

Bai; neronek eraman eta neure egin ditut instant horiek. Denboraren esferan sartu ezker ezer ez dago iragana birgaitze, birziklatze edo erreziklatzerik. Hemen proposatutako jolasaren partehartzaila izan bazara, iruzur baten aurrean zaude zurea zena, propioena, betirako kendu zaizulako modurik ergelenean. Ez duzu inoiz arestian galdutako beta berraurkituko, unetik unera akaberara ailegatzen ari den altxor iragankorra.

Kontuz ibili gero! Ni bezalako denbora-lapur asko ibiltzen da edozein orrialde-tan. Neuk behintzat, ia egunero egiten dut topo baten batekin. Hala ere, ez dago deus egiterik denbora-zurrupakari-aurka, inongo epailek ezin baitu oraingo bandakook prozesatuko gaituen legerik erabili.




## «Antzerki mota hau da jendeak gehien eskatzen duena»

A. BARANDIARAN / IRUÑEA

'Celos del aire' Lopez Rubio antzerkigile espainarraren antzezlanak aurkeztu du joan berri zaizkigun Gabonetako opor hauetan Compañía Titular del Teatro Gayarre taldeak, Valentin Redin zuzendariaren agindupean. Hainbat aktore ezagunek osatutako konpainia hau urtean zehar eskaintza finkoa emateko asmoarekin sortu zen joan den urrian, eta lehen emaitza probetxuzkoa izan da oso: azken egunean bete egin zuten antzoki zaharra. Beran oinarrituta, bertako senar-emazte batzuek madrildar batzuei etxearen parte bat alokatzeko erabakia hartzen dutenean sortzen da istoria. Klasikoak izan gabe ezagunak diren sortzaileen lanak izango dituzte oinarri urtean hiru aldiz prestatu nahi dituzten muntaiak egiteko, baina prestakuntza oso neketsua ez duten lanak aukeratuko dituzte gehienbat. Jose Mari Asin da aktore ezagunek osatutako talde honetako partaideetako bat.

**EGUNKARIA.**— Nondik sortu zitzaizuen konpainia berri hau eratzeko ideia?

**JOSE MARI ASIN.**— Proiektuak jatorri bat du: Udalak 1992tik 1994ra bitarte burutu zituen antzerki proiektuetan —Zorrillaren 'Don Juan Tenorio', Bertolt Brechten 'Opera de Cuatro Cuartos' eta 'La Celestina'— talde osoa egon ginen, eta konturatu ginen bazezgoela aukera eskaintzeko antzezlan mota jakin bat: hau da, ez muntaia handiak ez oso txikiak direnak. Hor aurki daitezke autore handien —Lorca, Oscar Wilde— lan batzuk, jende askorentzat atsegingarri. Hori egin gabe zegoen hemen, eta Valentin Redini bururatu zitzaion Saide enpresarekin —Gayarre antzokiaren jabeak— hitz egin eta lehen oso ohikoa zen enpresa titularra osatzea.



Jose Maria Asin.

JOXE LACALLE

«Gure lan hau esportagarria da, baina dirua arazo handia da. Hala ere, penagarria da bakarrik Iruñean eskaini ahal izatea».

**EGUNKARIA.**— Zergatik aukeratu zenuten 'Celos del aire' lana lehen aldiz taularatzeko?

**ASIN.**— Daukagun ideien barruan oso ongi kokatzen delako. Oso ongi idatzitako testua da, eta sari asko jaso zituen bere garaian —50eko hamarkadan—. Lopez Rubiok merezitako ospea izan zuen orduan, eta Hollywooden izan zen gidoilari. Testua polita zen oso, oso erraza, eta uste genuen arrakasta izango zuela jendearen artean.

**EGUNKARIA.**— Eta arrakasta izan al du?

**ASIN.**— Bai, erabatekoa. Az-

ken emanaldian bete egin genuen aretoa. Aurrekoetan jende gutxi etorri zen, planteamendu okerra egin genuelako. Antzezlanak Gabonetan ateratu dugu, ustez garai ona zelakoan, baina ez da garai ona. Jendea oso lanpeturik dabil alde batetik bestera, eta ez du astirik, nonbait, antzerkira joateko. Hala ere, zuzen ibili gara lanarekin, azken egunean hiru aldiz jaso behar izan genuelako teloia.

**EGUNKARIA.**— Aktore ezaguna zarete denak, baina baduzue asmoa jende berria sartzeko, edo nahiago duzue taldea zuen

artean sendotu?

**ASIN.**— Talde hau irekia da, lehenik eta behin. Ohiko antzerki talde bat izan ohi den baina irekiagoa. Horrek esan nahi du edozein lanetan jende berria behar baldin bada, jende berria hartuko dugula. Hau da, ez ditugu pertsonaiak bortxatuko gure artean egiteko.

**EGUNKARIA.**— Antzezlanak jendearendako atseginak direla esan duzu. Hau da zuei gustatzen zaizuen edo bada antzerkia orokorrean bultzatu nahia?

**ASIN.**— Hau ez da niri gustatzen zaidana, baina jazz josten duen musikariaren planteamendua egin behar da: 'jateko berbenetan jo behar da, gero joko dugu elkarrekin'. Guk ez ditugu beste esperientziak ahazten, baina talde honetan gaude, eta talde honek oso produktu konkretua eskaini nahi du: jendeari begira testu errazak, hori baita gehien eskatzen dena.

**EGUNKARIA.**— Baina zergatik egiten duzue: zuek antzezlanak egin nahi duzelako edo iruditzen zaizuelako eskaintza nahikorik ez dagoela?

**ASIN.**— Bi gauzak nahasten dira gure kasuan. Ez dago horrelako antzerkirik Iruñean, hemengo taldeek ez dutelako hori egiten. Ematen du prentsa txarra duela mundu guztiari gustatuko zaion antzerkiak, oso garai berezi batetik ateratzen direla. Lehen konprometuzko zegoen arlo guztietan eta gaur egun ez hainbeste. Izan ere, antzerkia gizartearen isla da. Beste alde batetik, badugu gogoia, jakina. Nik beti gozatu izan dut antzerkia egiten. Bertolt Brecht gehiago gustatzen zait, baina hau ere gustukoa dut.

**EGUNKARIA.**— Soilik Iruñerako konpainia da, edo ateratzeko asmoa duzue?

**ASIN.**— Nik uste dut esportagarria dela, baina dena mugitzeko dirutza behar da.

## Jose Maria Asin

AKTOREA



SOSLATA

### Lanak aberastuta

Zizur Nagusiko koordinatzaile kulturala izanik, behin baino gehiagotan egon da Jose Mari Asin dena utzi eta antzerkian buru-belarri murgiltzeko amorratuta, baina duen lanak bere pasioarekin harreman estua izateko parada ematen diola onartzen du.

«Gure egitarauen programazioei esker, sorkuntzarekin etengabeko harremana daukat, eta horrek aberastu egiten nau». Lana, beraz, oztopo ez baino laguntza bada hogeitaretan zehar izan duen jardueraren artistikoa egin ahal izateko, baina garbi mintzatu da: «Egunen batean antzerkitik bizi ahal izango banintz, ez nuke duda izpirik izanen».

NOSKI JATOR

KAUKASO KONEKTIÓN!!!

© Zaldí ER0A

